Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 24a, asteazkena — 76 — Miércoles, a 24 de abril de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORMAIZTEGIKO UDALA

*Ormaiztegiko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Ordenantzaren behin betiko onespena.*

Ormaiztegiko Udalbatzak, 2019ko otsailaren 22ko bilkuran, udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Ordenantzari hasierako onespena eman zion.

Jendaurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu, ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da.

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean. Esandako epea argitalpen honen hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Bestetik, Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agin tzen duena betez, berau argitaratzera goaz.

Ormaiztegi, 2019ko apirilaren 24a.—Jon Enrique Galarza, alkate-lehendakaria. (2320)

*Ormaiztegiko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Udal Ordenantza.*

### ARRAZOIEN AZALPENA

Euskal Udalerrietako markoan edo herri kulturan sustrai sakonak hedatu ditu denda edo merkataritza saltoki iraunkorretatik kanpo egiten den salmentak. Ormaiztegiko herriak ez dauka komertzio jarduera mota honi dagokion Ordenantza.

Araudiari dagokionez, Toki Erregimenaren oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak jasotzen du Udalen eskuduntza azoken materiari dagokionez. Euskadiko Autonomia Erkidegoan Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak hartu behar dira kontuan.

Europa mailan 2006/123/CE Zuzentaraua eman zen 20016ko abenduaren 12an. Zuzentarau honek estatuko arauetan, autonomiakoetan eta udal ordenantzetan aldaketa garrantzitsuak egitea zekarren. Hori dela eta, zehazki salmenta ibiltariaren alorrean, 1/2010 Legea onartu zen, Txikizkako Merkataritza arautzekoa (LOMC) eta baita 199/2010 Errege Dekretua ere, otsailaren 26koa, salmenta ibiltarian edo ez sedentarioan aritzea arautzen duena.

Araudi hau aplikatzen da merkatari batek saltoki iraunkorretik kanpo egindako salmenta ibiltari edo noizbehinkako orori, aldizkakotasuna eta tokia edozein izanda ere.

Merkataritza jarduera horren barruan sartzen dira bide publikoan eta noizbehinkako azoketan egiten diren salmentak. Txikizkako merkataritzari buruzko legediak ez ditu nekazaritzako produktuen feriak baztertzen, modu independentean salmentarako jarduera komertzial argia duten heinean.

## AYUNTAMIENTO DE ORMAIZTEGI

*Aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Ormaiztegi.*

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 22 de febrero de 2019, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora de la venta ambulante en el municipio de Ormaiztegi.

Transcurrido el plazo de exposición pública no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, debe entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses. Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 70.2 de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a su publicación.

Ormaiztegi, a 24 de abril de 2019.—El alcalde-presidente, Jon Enrique Galarza. (2320)

*Ordenanza Municipal reguladora de la venta ambulante en el municipio de Ormaiztegi.*

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La venta ambulante o venta fuera de establecimiento comercial constituye una actividad tradicionalmente ejercida en el marco territorial vasco. El municipio de Ormaiztegi no cuenta con una Ordenanza que regule dicha actividad en el municipio, aunque se lleve desarrollando desde hace años.

En cuanto a la normativa aplicable, la Ley 7/1985, reguladora de las bases de Régimen Local recoge la competencia del Ayuntamiento en materia de los mercados. En la Comunidad Autónoma de Euskadi han de tomarse en cuenta la Ley 7/1994, de 27 de mayo, de la actividad comercial y la Ley 2/2016, reguladora de las Instituciones Locales de Euskadi.

A nivel europeo se dictó la Directiva 2006/123/CE, el 12 de diciembre de 2006. Esta Directiva ha supuesto la obligación de realizar importantes cambios en la normativa estatal, autonómica e, incluso, en las ordenanzas municipales. En concreto, en materia de venta ambulante, se han aprobado la Ley 1/2010, de Ordenación del Comercio Minorista (LOCM) y el Real Decreto 199/2010, de 26 de febrero, por el que se regula el ejercicio de la venta ambulante o no sedentaria.

Esta normativa se aplica a toda venta ambulante u ocasional realizada por las/los comerciantes fuera de un establecimiento permanente, cualquiera que sea su periodicidad y el lugar donde se celebre.

Dentro de esta actividad comercial se incluye en todo caso la venta en vía pública y en mercados ocasionales. La legislación sobre comercio minorista no excluye a las ferias de productos agrícolas en la medida de que incorporan de forma independiente una clara actividad comercial de venta.

EK\CV GAO-I-2019-02320

Honek guztiak sakoneko aldaketa ekarri du salmenta ibiltarian aritzeko orduan. Salmentarako baimena lortu behar izateak lur publikoa erabiltzean dauka oinarria, hau mugatua baita.

Ordenantza honetan kontuan hartu dira Emakumeen eta Gizonezkoen berdintasunari eta Euskararen normalizazioari dagokienez egun aplikagarri diren lege xedapenak.

Ordenantza Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 129. artikuluak xedatzen dituen printzipioetara egokitzen da. Honakoak dira printzipioak: beharra eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Aurrez aipatutako guztiagatik, komertzio jarduera gizarteko eskari berriei eta gaiaren inguruan eman diren lege berrikuntzei egokituko zaie. Xede horrekin egin da, hain zuzen, Ordenantza hau, betiere indarrean dagoen araudia betetzeko, lehia askea kontuan izanda eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzeko.

HASIERAKO TITULUA

XEDEA ETA EZARPEN-EREMUA

*1. artikulua. Objektua.*

Ordenantza honen helburua Ormaiztegiko Udalerrian kaleko salmenta arautzea da.

*2. artikulua. Kontzeptua.*

Kaleko salmentatzat hartzen da merkataritza establezimendu iraunkor batetik kanpoko ohiko edo noizbehinkako merkatariek egiten duten merkataritza jarduera, horretarako postu desmuntagarriak, eramangarriak edo denda- ibilgailuak erabiliz, aldez aurretik baimenduta dauden udalerriko toki eta egun jakinetan.

I. TITULUA

SALMENTA IBILTARI MOTAK

*3. artikulua. Kaleko salmentaren modalitateak.*

Honakoak dira Ordenantza honen ezarpen eremuari dagozkion kaleko salmentaren modalitateak:

1. Aldizkako azoka tradizionalak zein berriak, espazio publiko jakinean kokatutakoak eta aldizkakotasun finkoa dutenak.

2. Noizbehinkako azokak edo postuak. Azokak, jaiak, herri gertakariak edo artisau erakusketak eta antzekoak direla-eta ezartzen direnak.

3. Ibilgailu-dendetan edo bide publikoan jarritako postuetan egiten den salmenta, egoera eta baldintza zehatzetan baimendua.

*4. artikulua. Aldizkako merkatuak.*

Kaleko salmenta egiten den saltegi-multzoak dira honelako merkatuak, betidanik egin direnak edo berriak izan daitezke. Udalak erabakitzen duen kale esparruan egiten dira maiztasun zehatzarekin. Ormaiztegin asteartero egiten da izaera honetako azoka Muxika Egurastokia Plazan. Egun hau jai-eguna suertatuz gero, azoka aurreko egunean, hurrengo egunean edo asteko beste lan-egun batean egingo da.

*5. artikulua. Noizbehinkako merkatuak.*

Herriko, autonomi elkarteko edo estatuko jaiak, edo festak direla eta noizean behin antolatzen diren merkatuak dira (urtean behin, kasurik gehienetan).

Modalitate honetan urtean behin Ormaiztegin ospatzen diren azoka eta feriak sartzen dira: Ander Deunaren Jai ospakizunen barruan ospatzen den Odolki Eguneko azoka.

Todo ello representa un cambio sustancial para el ejercicio de la venta ambulante. El sometimiento a un procedimiento de autorización tiene su fundamento en el uso del suelo público, que es limitado, u otros supuestos tasados de interés público.

En esta Ordenanza se han tomado en cuenta las disposiciones legales vigentes referentes a la igualdad de mujeres y hombres y la normalización del euskera.

Se considera justificada la adecuación de la norma a los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, trasparencia y eficiencia, según el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Por todo lo mencionado, la actividad comercial debe adaptarse tanto a las nuevas demandas sociales como a las novedades legislativas sobre la materia. Con este objetivo se ha elaborado esta Ordenanza, garantizando el cumplimiento de la normativa vigente, en el marco de la competencia libre y respetando los derechos de las/los consumidoras/es y las/los usuarias/os.

TÍTULO INICIAL

OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1. Objeto.*

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el ejercicio de la venta ambulante en el término municipal de Ormaiztegi.

*Artículo 2. Concepto.*

Se considera venta ambulante la actividad comercial realizada fuera de un establecimiento comercial permanente por comerciantes, habituales u ocasionales, en puestos e instalaciones desmontables, transportables o en vehículos-tienda en lugares y fechas previamente autorizados en el término municipal.

TÍTULO I

TIPOS DE VENTA AMBULANTE

*Artículo 3. Tipos de venta ambulante.*

Constituyen modalidades de venta ambulante sujetas al ámbito de aplicación de la presente Ordenanza las siguientes:

1. Mercados periódicos de carácter tradicional o de nueva implantación, ubicados en espacios determinados y de periodicidad fija.

2. Mercados o puestos ocasionales, instalados con motivo de ferias, fiestas, acontecimientos populares o artesanales.

3. Venta en vehículos-tienda o puestos instalados en la vía pública, que se autorizan en circunstancias y condiciones precisas.

*Artículo 4. Mercados periódicos.*

Constituyen este tipo de mercados aquella concentración de puestos donde se ejerce la venta ambulante, de carácter tradicional o de nueva implantación y de periodicidad fija. Tiene lugar en espacios de la vía pública determinados por el Ayuntamiento. En Ormaiztegi se considera mercado de estas características el que se celebra semanalmente los martes en la Plaza Muxika Egurastokia. Caso de ser día feriado o festivo se trasladará el mercado al día anterior, posterior o a otro día laboral de la semana.

*Artículo 5. Mercados ocasionales.*

Son aquellos mercados que se celebran de manera no periódica (una vez al año en la mayoría de los casos) en razón de fiestas o acontecimientos populares, de carácter local u otros eventos festivos estatales o autonómicos.

Se incluyen en esta modalidad los mercados o ferias que se celebran en Ormaiztegi, una vez al año: mercado del Odolki Eguna en las fiestas patronales de San Andrés entre otros.

EK\CV GAO-I-2019-02320

*6. artikulua. Kamioi-dendatan gauzatzen den salmenta.*

Modalitate honetan kaleko salmentaren hainbat mota sartzen dira, ezaugarri nagusia izanik ibiltariak direla eta izaera berezia dutela. Salmenta Baimenen titularrek hertsiki bete beharko dituzte salmenta produktuen osasun arau teknikoak, baita gainerako arau aplikagarriak ere. Produktu bakoitzeko kopurua mugatu ahal izango da.

Jarduera aldizkakoa edo noizbehinkakoa izango da eta Udalaren baimenean agertzen den lekuan edo lekuetan egingo da.

Jan edarien salmentari dagokionez, ibilgailuari egin zaizkion egokitzapenak eta osagarriak ere agertuko dira, ezarri beharreko teknika eta osasun arloko araudia betetzen dituen egiaztatzeko.

Udalak baimena emateko, 14. atalean eskatzen diren baldintzez gain, eskaerari honako agiriok eranstea eskatuko dio eskaera egiten duenari: Ibilgailuaren zirkulazio baimena, ibilgailua erabiltzen duenaren gidabaimena, dagokion Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) gainditu izana egiaztatzen duen agiria eta indarrean dagoen derrigorrezko seguruaren agiria.

*7. artikulua. Ez dira kaleko salmenta.*

a) Etxez etxeko salmenta.

b) Urrutiko salmentak.

c) Makinen bidezko salmenta automatikoak.

d) Kalean baimendutako postuak, finko eta iraunkorrak badira.

*8. artikulua. Debekua.*

Debekatuta dago Ordenantza honetan aurreikusirik ez dagoen salmenta ibiltari oro egitea.

II. TITULUA

XEDAPEN KOMUNAK

I. KAPITULUA. SALMENTA IBILTARIETAN BAIMENDUTAKO PRODUKTUAK ETA SALTOKIAK

*9. artikulua. Salmenta produktuak.*

Produktuen, janari-edariak barne, kaleko salmenta baimentzen da arriskurik eragiten ez badiote osasunari zein segurtasun publikoari eta indarrean dagoen araudiak erregimen ibiltariko komertzializazioa debekatzen edo mugatzen ez badu.

Baimenen titularrek hertsiki bete beharko dituzte salmenta produktuen osasun arau teknikoak, baita gainerako arau aplikagarriak ere. Produktu bakoitzeko kopurua mugatu ahal izango da.

*10. artikulua. Saltokiak.*

Saltokien kopurua, horietako bakoitzean salduko diren salgaien adierazgarri eta guzti, saltokien neurriak eta gainerako baldintzak baimen bakoitzean zehaztuko ditu organo eskudunak.

Baimenen jabeek zehazten diren baldintzetara egokitu beharko dituzte euren instalazioak, betiere kontuan hartuta desmuntatu eta garraiatu daitezkeen instalazioak izan beharko dituztela eta segurtasun eta osasun baldintzak zein kaleko egokitasun baldintzak bete beharko dituztela.

*Artículo 6. Venta en camiones-tienda.*

En esta modalidad se engloban varias formas de venta ambulante, cuya principal característica diferencial es la itinerancia y su carácter excepcional. La persona que realiza este tipo de venta utiliza, a tal fin, un vehículo de tipo furgoneta o camión, acondicionado de acuerdo a la normativa aplicable al transporte y venta de productos autorizados.

La actividad podrá ser periódica u ocasional y se realizará en los lugares señalados al efecto en la autorización municipal.

En el caso de venta de productos alimenticios será preciso hacer constar, asimismo, la descripción del acondicionamiento y las dotaciones del vehículo respecto de las reglamentaciones técnico-sanitarias de aplicación.

Además de los requisitos exigidos en el artículo 13, las personas que soliciten la autorización deberán acompañar a la solicitud: el permiso de circulación del vehículo, el carnet de conducir de la persona que utilice el vehículo el documento acreditativo de haber superado la Inspección Técnica de Vehículos (ITV) correspondiente y el recibo del seguro obligatorio en vigor.

*Artículo 7. No tendrán en ningún caso la consideración de venta ambulante.*

a) La venta a domicilio.

b) La venta a distancia.

c) Las ventas automáticas a través de máquinas.

d) Los puestos autorizados en la vía pública pero que tengan carácter fijo y estable.

*Artículo 8. Prohibición.*

Queda prohibido en todo el término municipal la venta ambulante fuera de los supuestos previstos en esta Ordenanza.

TÍTULO II

DISPOSICIONES COMUNES

CAPÍTULO I. DE LOS PRODUCTOS Y PUESTOS AUTORIZADOS PARA LA VENTA AMBULANTE

*Artículo 9. De los productos de venta.*

Podrá autorizarse la venta ambulante de aquellos productos, incluidos los alimenticios, que no conlleven riesgo para la salud o seguridad pública y que la normativa vigente no prohíba o limite su comercialización en régimen ambulante.

Las personas titulares de las autorizaciones darán estricto cumplimiento a las reglamentaciones técnico sanitarias de los productos que comercialicen y al resto de la normativa que resulte de aplicación.

*Artículo 10. De los puestos de venta.*

El número de puestos de venta con indicación de los artículos de venta en cada uno de ellos, las medidas de mayor o menor amplitud de los puestos y demás condiciones de los mismos serán determinados por el órgano competente en cada autorización.

Los/las titulares de las autorizaciones deberán sujetar sus instalaciones a los condicionamientos señalados teniendo en cuenta que en todo caso habrá de tratarse de instalaciones desmontables de fácil transporte y que reúnan condiciones de seguridad, salubridad y orden público.

EK\CV GAO-I-2019-02320

II. KAPITULUA. KALEKO SALMENTA EGIKARITZEA

*11. artikulua. Salmenta ibiltarian aritzeko baldintzak.*

Hurrengo baldintzak bete beharko dira Ormaiztegin salmenta ibiltaria egin ahal izateko:

1. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion idazpuruetan alta emanda egotea, ndarrean dagoen araudian horrela eskatzen denean eta zerga horren ordainketak eguneratuak izatea.

2. Gizarte Segurantzan alta emanda egotea eta kuotaren ordainketetan eguneratuta egotea. Pertsona juridikoen kasuan, izena emanda egotea Gizarte Segurantzan enpresa gisa langileak deklaratuak izatea eta kuoten ordainketak gaurkotuta edukitzea.

3. Merkataritzako produktuei eta instalazioei buruzko berariazko arauek ezartzen dituzten higiene eta osasun baldintzak edo bestelakoak betetzea. Janarien salmenta kasuan elikagaiak maneiatzeko gaitasun agiria.

4. Udalaren baimenaren jabe izatea.

5. Indarrean dauden ordenantza fiskaletan zehaztutako tasak ordaintzea.

6. Atzerritarrei dagokienez, egoitza eta lan baimenak lortu izana egiaztatzen duten agiriak edota egoitza izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dien bestelako agiriak.

7. Bertako produktuen ekoizleen kasuan, Nekazaritza Ekoizpeneko Erregistro Nagusian (REGEPA) alta emanda izatea.

8. Pertsona juridikoen kasuan, Merkatal Erregistroan inskribatuta egotea.

III. KAPITULUA. ESKAERAK

*12. artikulua. Alkateari zuzendutako eskaria.*

Salmenta postua ustiatu nahi duten pertsonek Alkatetzari edo ahalmendutako organoari aurrez egingo diote eskaera eta eskaeran honakoak adieraziko dira:

a) Eskaera egilearen izena eta deiturak, emakumea edo gizona den adieraziz.

b) NAN edo ANA eta IFZren zenbakia, lege nortasuna dutenen kasuan.

c) Helbidea.

d) Instalazio eta salmentako artikuluen deskribapena.

e) Pertsona juridikoen kasuan, hurrengoa adieraziko da: saltzeko baimena duenaren kontura jardungo duen langile edo bazkidearen izena, helbidea eta NANa, emakumea edo gizona den adieraziz.

f) Tokia, eguna eta ordutegia edo, hala badagokio, baimena eskatu duen merkatuaren aldizkakotasuna eta kokapen finkoa, asterako azokaren kasuan garbi zehaztuz hilabetean zenbait egun eta zenbait hilabete urtean etorriko den.

g) Hartuko duen luzeera (metro linealetan).

*13. artikulua. Eskaerak aurkeztea.*

1. Eskaera aurkezteak interesatuei eskatuko die, bakarrik, ardura aitorpena sinatzea. Bertan honakoak adieraziko dira:

a) Ezarritako baldintzak betetzen dituela.

b) Jarduera hasieran hori egiaztatzen duen dokumentazioa edukitzea.

II. CAPÍTULO. DEL EJERCICIO DE LA VENTA AMBULANTE

*Artículo 11. Requisitos para el ejercicio de la venta ambulante.*

Para el ejercicio de la venta ambulante en el término municipal de Ormaiztegi se requiere:

1. Estar dado de alta en los epígrafes correspondientes del impuesto sobre Actividades Económicas cuando así se exija por la normativa vigente en esta materia y encontrarse al corriente de su pago.

2. Estar dado de alta en el Régimen General de la Seguridad Social que corresponda y al corriente de pago de la cuota. En el caso de personas jurídicas estar inscrito como empresa en la Seguridad Social, tener afiliado al personal trabajador y estar al corriente de pago de las cuotas.

3. Cumplir los requisitos higiénicos sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados e instalaciones. En caso de productos alimenticios, carnet de manipulador de alimentos.

4. Disponer de autorización municipal.

5. Estar al corriente en el pago de las tasas correspondientes, establecidas en la ordenanza fiscal.

6. En el caso de personas extranjeras, documentación acreditativa de haber obtenido los correspondientes permisos de residencia y trabajo o cualquier otra documentación que le habilite para residir o trabajar.

7. En el caso de las/los productores de productos autóctonos, estar dados de alta en el Registro General de la Producción Agrícola.

8. En el caso de las personas jurídicas, que estar inscritos en el Registro Mercantil.

CAPÍTULO III. SOLICITUDES

*Artículo 12. Instancia dirigida al Alcalde.*

Las personas interesadas en explotar un puesto de venta dirigirán una solicitud a Alcaldía u órgano delegado, en que se harán constar:

a) Nombre y apellidos de la/el peticionaria/o, indicando si es mujer u hombre.

b) Número de del DNI o NIE y CIF, en caso de personas jurídicas.

c) Domicilio.

d) Descripción de las instalaciones y de los artículos de venta.

e) En el caso de personas jurídicas, además, se hará constar, además, el nombre, domicilio y DNI de la/del empleada/o que vaya a hacer uso de la autorización por cuenta de ésta, indicando a su vez si es mujer u hombre.

f) Lugar, fecha y horario, o en su caso periodicidad y ubicación fija para la/el que solicita la autorización, haciendo constar en el caso del mercado semanal los días de la semana que acudirá, días totales al mes y número de meses anuales.

g) Número de metros lineales que se precisa ocupar.

*Artículo 13. Presentación de solicitudes.*

1. La presentación de la solicitud requerirá a los/as interesados/as, únicamente, la firma de una declaración responsable en la que manifieste, al menos:

a) El cumplimiento de los requisitos establecidos y la veracidad de los datos aportados en la solicitud.

b) Estar en posesión de la documentación que así lo acredite a partir del inicio de la actividad.

EK\CV GAO-I-2019-02320

c) Lizentzia indarrean dagoen epean baldintzak betetzen direla bermatzea.

2. Horretaz gain, ardura aitorpenak ondorengo alderdiak jasoko ditu:

a) Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bidezko epigrafean alta emanda egotea eta tarifaren ordainketan egunean egotea, edo salbuetsita egonez gero zergak ordaindu beharrekoen erroldan alta emanda egotea.

b) Gizarte Segurantzaren kotizazioen ordainketan egunean egotea.

c) Salmenta ibiltarian edo ez sedentarioan salduko den produktua edo produktuak arautzen dituen araudiak ezarritako baldintzak betetzea.

d) Sexu bereizkeriagatik, administrazio edo zigor isunik ez duela baieztatzen duen adierazpen arduratsua.

Interesdunak, 11. eta 13.2. artikuluetan galdatzen diren baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du eskariarekin batera edo udalak hala eskatuta, baldin eta udal administrazioak aurretiaz ez badauka dokumentazio hori.

IV. KAPITULUA. PROZEDURA

*14. artikulua. Eskaerak zuzentzea.*

Eskaerak aurreko artikuluetan adierazitako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunak nahitaezko dokumentuak, hamar eguneko epean, aurkeztea galdatuko dion ohartarazpena jasoko du eta halaber jakinaraziko zaio dokumentuok ez aurkezteak Udaleko eskaerari uko egitea dakarrela.

*15. artikulua. Erabakia.*

Eskabidea eta dagozkion agiriak jaso ondoren, eskumena duen udal organoak aurkeztutako eskaera eta agiriak aztertuko ditu (eta hala badagokio nahitaezko txostenak) eta eskaerari baiezkoa edo ezezkoa emango dio.

*16. artikulua. Udal baimenaren edukia.*

Udal baimenak nahitaez honakoak jasoko ditu:

a) Lizentziadunaren identifikazioa eta bere izenean jarduteko baimendutako pertsona edo pertsonena, horien sexua adieraziz.

b) Epe eta kokapen jakineko merkatuan saltoki zenbakia, edo hala badagokio, jarduera burutu daitekeen tokia edo tokiak.

c) Baimendutako produktua.

d) Jarduera burutzeko eguna eta orduak, noizbehinkako merkatuen kasuan.

e) Okupatu beharreko lurzorua.

f) Instalazioaren ezaugarriak.

g) Kaleko salmenta arautzen duen Ordenantzaren kopia.

Saltzaileak Ordenantzaren kopia aurkeztuko du sinatuta. Sinadura horren bidez saltzaileak Ordenantzan ezarritakoa errespetatzeko eta betetzeko betebeharra bere gain hartzen dute.

*17. artikulua. Baimenak baliogabetzea.*

Baimenek izaera diskrezionala izango dute eta ondorioz, Udal honek errebokatu ahal izango ditu komenigarritzat jotakoan, hori eragindako gorabeherak desagertzen direnean, hain zuzen. Ezarritako baldintzak betetzen ez direnean baimenak baliogabeak izango dira. Hori dela eta ez da inongo kalte-ordainik ordainduko.

Inoiz ezingo zaio titular bati, epe berdinerako, salmenta ibiltaria gauzatzeko baimen bat baino gehiago eman.

c) Mantener su cumplimiento durante el plazo de vigencia de la autorización.

2. El contenido de la declaración responsable comprenderá, además, los siguientes extremos:

a) Estar dado de alta en el epígrafe correspondiente del impuesto de actividades económicas y estar al corriente en el pago de la tarifa o, estar exentos, estar dado de alta en el censo de obligados tributarios.

b) Estar al corriente en el pago de las cotizaciones de la Seguridad Social.

c) Reunir las condiciones exigidas por la normativa reguladora del producto o productos objeto de la venta ambulante.

d) Declaración responsable de no estar sancionado penal o administrativamente a causa de discriminación por razón de sexo.

El interesado adjuntara a la solicitud o pondrá a disposición del Ayuntamiento de Ormaiztegi cuando este lo exija la documentación acreditativa de los requisitos exigidos en el artículo 11 y 13.2, en el caso de que la misma no obre en poder de esta administración local.

CAPÍTULO IV. PROCEDIMIENTO

*Artículo 14. Subsanación de la solicitud.*

Si la solicitud no reúne los requisitos que señala el artículo anterior, se requerirá al interesado para que en un plazo de diez días subsane la falte o acompañe los documentos preceptivos, indicándole que si no lo hiciera se le tendrá por desistido de su petición al Ayuntamiento.

*Artículo 15. Resolución.*

Recibida la solicitud y los documentos pertinentes, el órgano municipal competente, examinada la documentación aportada, y en su caso los informes preceptivos, resolverá la petición admitiendo o denegando la solicitud efectuada.

*Artículo 16. Contenido de la autorización municipal.*

La autorización contendrá de forma expresa:

a) Identificación de la/del titular de la licencia y de las personas autorizadas para ejercer la actividad a su nombre, especificando el sexo.

b) Número de puesto en el mercado de ubicación, lugar o lugares en los que se puede ejercer la actividad.

c) Producto autorizado.

d) Fechas y horario para el ejercicio de la actividad, en caso de mercados ocasionales.

e) Superficie a ocupar.

f) Características de la instalación.

g) Una copia de la Ordenanza municipal reguladora de la venta ambulante.

Además la/el vendedora/vendedor deberá entregar firmada una copia de dicha Ordenanza, con la cual se asume la obligatoriedad de respetar y cumplir lo establecido en la Ordenanza.

*Artículo 17. Revocación de las autorizaciones.*

Las autorizaciones tendrán carácter discrecional y por consiguiente podrán ser revocadas por el Ayuntamiento cuando se considere conveniente en atención a la desaparición de las circunstancias que la motivaron, sin que de origen a indemnización o compensación alguna.

En ningún caso podrá concederse a una misma persona titular, dentro del mismo periodo, más de una autorización para el ejercicio de la venta ambulante.

EK\CV GAO-I-2019-02320

V. KAPITULUA. UDAL BAIMENAREN EZAUGARRIAK

*18. artikulua. Lehentasuna.*

Baimenak esleitzerako garaian Udalerrian egoitza daukaten merkatariek lehentasuna izango dute. Era berean, bertako produktuen salmentari lehentasuna emango zaio. Emakumeari lehentasuna eman ahalko zaio normalean gizonezkoek egiten duten merkataritza jardueretan.

*19. artikulua. Hutsik geratzen diren saltokiak.*

Urtean zehar maiztasun eta kokapen finkoko merkatuetan hutsik geratzen diren saltokiak baldintzak bete arren aurretik baimenik lortu ez duten eskabide egileen artean esleituko dira.

Kasu horietan, eskabidearen antzinatasuna hartuko da kontuan.

Hutsik dauden saltokietan pertsona baimenduak badaude, horiek lehentasuna izango dute saltoki hori esleitzerakoan, baldin eta baja eman duen titularrak zorrik utzi ez badu saltoki hori erabiltzeagatik eta merkatu berean beste saltoki bat erabiltzeagatik. Hala ere, aurreko saltzailearen zorrak kitatuz gero, esleipenerako lehentasuna izango du kitatzaileak, betiere organo eskudunak hala erabakiz.

*20. artikulua. Baimenaren izaera.*

Udal baimena besterenganaezina eta pertsonala izango da, alabaina titularraren familiakoek edo behar bezala baimendutako langileek erabili ahal izango dute. Aurreko arau horrek ez du eragotziko saltokia handitzeko eman daitezkeen baimenak, eskualdeko produktuak saldu nahi direnean.

*21. artikulua. Indarraldia.*

Udal baimenak gehienez ere urtebeteko iraupena izango du, abenduaren 31 arte, hurrengo kasuetan izan ezik:

1. Baimena denboraldi jakinetan egiten diren merkatuetan saltzeko denean; holako baimenak denboraldia amaitzeaz batera indargabetuko dira.

2. Baimena noizbehinkako merkatuetan kalez kale saltzeko eta kamioi dendetan saltzeko denean. Baimen horiek ematen direnean baimenetan finkatuko dira salmenta egiteko egunak.

Baimena berritzeko, eskaera egin beharko zaio udal agintaritzari horretarako ezartzen den epean.

*22. artikulua. Baimena iraungitzea.*

Salmenta ibiltarirako baimenak honako arrazoi hauengatik iraungiko dira:

a) Epemuga bukatzea.

b) Titularrak baimenari uko egitea.

c) Pertsona titularra hiltzea, edo enpresa desegitea.

d) Baimena galtzeak dakarren zigorra.

e) Dagozkion prezio publikoak ez ordaintzea.

f) Baimena lortzeko baldintzak edo baldintzaren bat ez betetzea.

g) Udalak aurrez jakin gabe merkatura lau aste jarraian ez joatea.

h) Udalak baimena ezeztatzea, 17. atalean zehazten den moduan.

i) Kokapen eta maiztasun finkoko merkatua edo udalerriko kaleko salmenta etetea.

j) Baimenik ez duten gaiak saltzea.

CAPÍTULO V. CARACTERÍSTICAS DE LA AUTORIZACIÓN MUNICIPAL

*Artículo 18. Prioridad.*

Las/los comerciantes con domicilio en el municipio tendrán prioridad en la adjudicación de las autorizaciones. Se dará prioridad, asimismo, a la venta de productos autóctonos. Se podrá beneficiar a la mujer en aquellas actividades comerciales masculinizadas o ejercidas normalmente por los hombres.

*Artículo 19. Puestos vacantes.*

Los puestos de mercados de periodicidad y ubicación fija que queden vacantes en el transcurso del año serán adjudicados entre quienes lo solicitaron y reuniendo los requisitos no obtuvieron anteriormente la autorización.

Se tendrá en cuenta, en estos casos, la antigüedad de la solicitud.

Si existen personas autorizadas en los puestos vacantes tendrán prioridad en la adjudicación del mismo, siempre y cuando el titular que causa baja no tenga cuentas pendientes generadas por la utilización de dicho puesto, u otros en el mismo mercado, a no ser que el nuevo solicitante se haga cargo de la cancelación de las deudas contraídas por dicho concepto, y así lo determine el Órgano competente.

*Artículo 20. Naturaleza de la autorización.*

La autorización municipal es intransferible y personal. Sin embargo, lo podrán utilizar los familiares o empleados habilitados. Todo ello sin perjuicio de las ampliaciones que se autoricen en el supuesto de explotaciones de productos autóctonos de la comarca.

*Artículo 21. Vigencia.*

La autorización tendrá un periodo de vigencia máxima anual, terminando el día 31 de diciembre de cada año de su otorgamiento, salvo en estos casos:

1. La autorización para la venta en mercados que se celebran por temporada, la cual caducará al finalizar la temporada.

2. En los supuestos de venta ambulante en mercados ocasionales y en camiones-tienda de carácter ocasional, en cuyas autorizaciones se fijarán las fechas concretas para el ejercicio de esta modalidad de venta.

Para su renovación se deberá presentar ante la autoridad municipal la petición para la autorización dentro del plazo que se determine al efecto.

*Artículo 22. Extinción de la autorización.*

Las autorizaciones para la venta ambulante se extinguirán por:

a) Término del plazo para el que se otorgó.

b) Renuncia de la persona titular.

c) Fallecimiento de la persona titular o disolución de la empresa en su caso.

d) Sanción que conlleve perdida de la autorización.

e) Impago de las tasas correspondientes.

f) Pérdida de algunos o alguno de los requisitos exigidos para obtener la autorización.

g) No asistir, sin previo conocimiento justificado del ayuntamiento, al mercado durante cuatro semanas.

h) Por revocación establecida en el artículo 17.

i) Supresión del mercado de periodicidad fija o del ejercicio de la venta ambulante en general en el término municipal.

j) Venta de productos no autorizados.

EK\CV GAO-I-2019-02320

k) Salmentarako baimendutako esparrutik kanpo saltzea.

d), e), f), g), h) eta i) arrazoiek eragindako iraungipenerako beharrezkoa izango da aginpidea duen udal organoak akordioa hartzea, interesatuari 15 eguneko gehienezko epearen barruan entzunda.

III. TITULUA

KALEKO SALMENTA EGITEN DUTENEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

I. KAPITULUA. ESKUBIDEAK

*23. artikulua. Eskubideak.*

Ormaiztegiko udalerrian kaleko salmenta egiteko udal-baimenen jabe direnek honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Baimena duteneko saltokiak betetzekoa.

b) Udalak baimendutako salmenta-jarduera jendaurrean eta baketsuki gauzatzekoa, baimenean zehaztutako ordu eta baldintzetan.

c) Baimena eman den merkatua eteten bada, udal- baimenaren jabe denak haren ordez egin daitekeen merkatuan beste saltoki bat lortzeko lehentasuna izatekoa, eta, ahal den neurrian, iraungitako baimenaren baldintza berak gordeaz.

d) Merkatuaren funtzionamendua hobetzeko erreklamazioak eta iradokizunak idatziz aurkeztekoa.

e) Bere saltokia non dagoen jakitekoa. Saltoki hori, beti ere, galipotez, solairuz edo porlanez estalitako zoruaren gainean ezarri beharko da.

f) Gutxienez astebete aurretik azoka egunen edo ordutegien aldaketen berri izatea.

g) Salmentarako baimendu den data ez aldatzea Udalak, salbu jaieguna edo gertakizun bereziren baterako eguna denean; holakorik gertatzen bada, Udalak aldez aurretik jakinaraziko die saltzaileei, behar adinako denboraz.

II KAPITULUA. BETEBEHARRAK

*24. artikulua. Betebeharrak.*

Kaleko salmenta gauzatzeko udal- baimenaren jabeek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

a) Salmenta saltoki edo instalazio desmuntagarrietan egin beharko da, edota 11 artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten kamioi-dendetan, hau da, garria errazak eta jarduera horretarako egokiak.

b) Saltokien jabeek agerian ezarriko dute euren udal-baimena.

Betebehar hori ez betetzeak edota baimenean zehazten ez diren produktuak saltzeak saltokia badaezpada ixtea ekarriko du, bidezko den zigor-espedienteari hasiera ematearen kalterik gabe.

c) Saltzaileek, merkataritza-jarduera gauzatzerakoan, indarrean dauden unean uneko arauek merkataritzaz, merkatuko jaurbideaz, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaz xedatutakoa bete beharko dute.

